

III. ERANSKINA. Kontratazio-zerrenden sisteman eskabideak aktibatzeneko prozedura

Argibideak, 2017-2018 LEPeko hautaketa-prozesutik sortutako kontratazio-zerrendetan eskabideak sartzeko prozeduraz

Egiaztapena, txandaren arabera:

1. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda horretako kideek egiaztatu dute alde aurretik dagokien dokumentazioa.

Ofizioz sartu dira horiek zerrendan, “Lanerako gertu” egoeran (ahalik eta gertutasun handienarekin, baldin eta ez badaude Udalean lanean), edo “Lanean, beste zerrenda batetik” egoeran, kontrako kasuan.

Egoera-aldaketak (esaterako, aldi baterako baja ematea, edo parte hartzeko baldintzak aldatzea) webgunetik egin behar dira. Webguneko zenbait lekutatik sartu daiteke kontratazio-zerrendetan, esaterako hemendik: <http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak>.

Datu pertsonalak kontsultatzeak nolabaiteko identifikazio elektronikoa eskatzen du, esaterako NAN elektronikoa, lizenpe txartela, Herritarren Udal Txartela([HUT](#)) edo antzekoren bat.

2. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda honetako kideek EZ dituzte eskabideak (kasu batzuetan ezta merituak ere) egiaztatu. Egoera (alta/aldi baterako baja) eta –behar izatera– parte hartzeko baldintzak hautatu baino lehen, egiaztapen-izapidea egin beharko dute. Tramite hori egin eta eskabidea balioetsi arte, kontratazio-zerrendan “Hasierako egoera-Aldi baterako baja” egoera administratiboan egongo dira, zeinean ez baita lan-kontraturik eskaintzen.

3. txanda Norberari buruzko informazioa eta hautaketa-prozesuaren emaitzei buruzkoa (baldin eta emaitza horiek behin betikoak badira) aurretiaz txertatuta daude kontratazio-zerrenden sisteman.

Txanda horretako kideek EZ dituzte eskabideak egiaztatu. Egoera (alta/aldi baterako baja) eta –behar izatera– parte hartzeko baldintzak hautatu baino lehen, egiaztapen-izapidea egin beharko dute. Tramite hori egin eta eskabidea balioetsi arte, kontratazio-zerrendan “Hasierako egoera-Aldi baterako baja” egoera administratiboan egongo dira, zeinean ez baita lan-kontraturik eskaintzen.

Egiaztapena egiteko bideak:

Aurrez aurre: Sistema nagusia, kontratazio-zerrendan 2. edo 3. txandan egoteko eskakizunak betetzen dituen pertsona ororentzat.

Hitzordua erreserbatzeko, jo dagokion estekara. Hitzordura aurkeztu behar dira:

- Eskatzailearen NANA
- Deialdian parte hartzeko aukera ematen duen titulu akademikoa – originala eta fotokopia bat -.
- Tasarik ordaindu ezean, edo tasa murriztua ordaindu izatera, horretarako bide ematen duen egoeraren egiaztagiria.

Alta eskatu nahi izatera, zerrendan parte hartzeko baldintzak jakinarazi beharko dira, [Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia \(2014/06/18ko ALHAO, 68 zk.\)](#) honetako I. eranskineko parametroen arabera.

E-posta bidez: Soilik agiriak Gasteizko Udalaren aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan balioetsita dituzten eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko tasa osorik ordaindua duten pertsonentzat.

Kasu horretan e-postako mezu bat bidali behar da seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org helbidera. Gaia eremuan “**2017-2018 LEP. Kontratazio-zerrendak**” adierazi behar da, eta mezuaren barruan hauxe: “LEP honetan nire dossier pertsonalari dagokion agiriak egiaztatzea eskatzen dut, horren bidez ALTA edo ALDI BATERAKO BAJA (hautatu aukera egokia) egoeran agertzeko kontratazio-zerrendan”. Dagokion kontratazio-zerrenda gehitu behar da, eskatzailearen izen-abizenak eta NANA adierazi, webgunean ager daitezkeen datuak zuzendu (behar izatera, eta zerrendan alta egoeran agertzea eskatuz gero, bertan parte hartzeko baldintzak jakinarazi beharko dira, parametroen arabera.

Hortik aurrerako aldaketak oro, aukeran Udalaren webguneko “[Kontratazio zerrenda](#)” atalean egin beharko dira, “<http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak>” orrialdeko menuetik joanda.

Epeak:

Agiriak egiaztatzeko epea mugarik gabe izango da irekita, zerrenda indarrean egon bitartean.

Ez zaio lan-eskaintzarik egingo LEPean agirien bidez parte hartzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez duen inori.

Zerrenden iraunaldia kontratazioekin batera hasiko da, irailaren 15ean edo hortik aurrera.